



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO MARTXOAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Martxoaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, M Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai eta Julen Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Otsailaren 27ko ohiko batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak

-2023/18 alkate ebazpena: Onartzea, M^a Concepción Echeverria Muguruzari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

- 2023/19 alkate ebazpena: Onartzea Bimook Consultoria Inmobiliaria empresak Bixente Maiesterrenak ordezkatzeko duenak aurkeztutako 895 euro BEZ kanpoko aurrekontua, Jaunsarasko 5. Poligonoko 12,13,14 eta 16. Lursailen tasazio dokumentua egiteko.

- 2023/20 alkate ebazpena: Bereizketa baimena ematea Francisco Fuertes Martiarena eta M^a Cruz Ayensa Azconari

Berueteko 11. Poligonoko 485. Lursailetik 521 m² bereizi eta poligonoko bereko 19. Lursailera gehitzeko.

-2023/21 alkate ebazpena: Ez onartzea SAT BIDEGAIN-ek aurkeztutako aitoren arduratsua, Udabeko 1. Poligonoko 24. Lursailean dagoen eraikineko teilatuan eguzki plakan jartzeko

- 2023/22 alkate ebazpena: Baimena ematea Bilgune Feministari, martxoaren 3an, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara eta martxoaren 5ean, 11.00etatik 13.30etara Basaburuko Kultur etxeko gela nagusia erabili ahal izatea, martxoak 8ari begirakoak prestatzeko

- 2023/23 alkate ebazpena: Ez onartzea Miguel Goñi Sarasolak eskatutako bereizketa baimena Gartzarongo 6. Poligonoko 192. Lursailerako, kontutan hartuta, 2002/1 Foru Legearen 48. Artikuluaren arabera, ez direla onartzen, laborantzako gutxieneko unitatera egokitzen ez diren lursailak sortzen dituzten bereizketak

- 2023/24 alkate ebazpena: Ez onartzea Irati Perea Artzek eskatutako obra baimena Udabeko 2. Poligonoko 104. Lursailean dagoen eraikina egonkartzeko, kontutan hartuta, eraikinak ez duela arriskurik sortzen barreatutako helbidean dagoelako eta ez dagoelako sartuta Babestutako Plan Bereziaren eraikinen zerrendan.

- 2023/25 alkate ebazpena: Onartzea, Juan Vildarraz Iribarreni aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

- 2023/26 alkate ebazpena: Baimena ematea Bilgune Feministari, martxoaren 24an, arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara eta apirilaren 1ean Basaburuko Kultur etxeko gela nagusia erabili ahal izatea, indarkeria matxistaren aurkako egunaren baitan burutu nahi dituzten tailerra, monologoa, bazkaria eta musika burutzeko.

- 2023/27 alkate ebazpena: Ainhoa Otermin Beraza onartzea Basaburuko Udaleko artxiboa kudeatzeko programan administrari laguntzaile bezala kontratua izateko, kontutan hartuz Nafarroako Emplegu Zerbitzuak bidalitako langabetuen zerrendan dagoela, eta ikusita bere kurrikulumean administrari ikasketak dituela, eta administrari bezala hainbat tokietan lan egin duela horien artean ere administrazio publikoan.

- 2023/28 alkate ebazpena: Roberto Martín Fernandezek Oihanzabal eskolako jantokiko kuotaren zati defizitarioaren erdirako dirulaguntza eskaera onartzea, 2023-2023 ikasturterako behin Hezkuntza Departamentuaren laguntza kendu ondoren.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- Mendialdeko elikadura plana arautuko duen hitzarmenaren onespena.

Alkateak azaltzen du, Cedernatik bidalitako hitzarmena da, lehen, udalek onartu zuten Cederna izango zela planaren kudeatzailea eta hortaz udalen izenean laguntzak eskatzeko aukera izanen lukeen, plan bat egitea adostu zen. Plan eta Hitzarmen honen helburua da mendialdeko sustapena eta garapen sozioekonomikoa, horretarako hainbat arlotan banatu da plana, industria, energia berdea, ostalaritza, turismoa...

Plana garatu eta lantzeko jarraipen batzorde bat osatuko da eta udal bakoitzak ordezkari bat izango du bertan, pisu ekonomikoaren arabera partaidetza izango du udal bakoitzak.

Basaburuko udalak ordaindu behar duen kuota 4338,47 eurokoa da 2023. Urtean.

Bildutakoek hitzarmena aztertu ondoren, aho batez onartzen dute Mendialdeko elikadura plana arautuko duen hitzarmena eta cederna Garalur entitateari. hala jakinaraztea agintzen dute

4.- 2023ko urtarrilaren 1eko datarekin biztanleriaren kopuruaren onespena.

Alkateak azaltzen du urteko biztanleen kopurua 845 pertsona dira INEren arabera, udaleko datuen arabera 846 pertsona, 367 emakume eta 479 gizon. Apirilaren 14rako onartu behar da biztanleriaren kopurua eta INEra bidali udaleko proposamena beraien datuetan alderaketa egin dezaten behin betiko zifra adosteko.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute 2023ko urtarrilaren 1eko Basaburuko biztanleriaren kopurua, 846 pertsona.

Erabaki hau INE-ra bidaltzea agintzen dute bildutakoek,

5.- Taxi baimena esleitzeko epea luzatzea.

Alkateak azaltzen du, 2022ko abenduaren 30ean onartu zela taxi baimenaren esleipena egitea, Otsailaren 23an argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epea 2 hilabeteko finkatu.

Epe hori martxoaren 26an bukatu zen... ez da inor aurkeztu...

Cederna Garalurreko zonaldeko teknikariak plegua aztertu du taxi gidari batekin eta bertan aldaketa batzuk txertatzea proposatzen dute. Autoen sailkapena egokitu beharko liriateke ECO eta 0 isurdurak sartuz eta hortaz kontutan hartuz egun trafikok onartu dituen sailkapenak, modu honetan geldituko zen autoen balorazioa:

10 puntu ECO etiketadun autoak

7 puntu 0 isurduradun autoak

3 puntu C etiketadun autoak.

Aldaketa hauek sartuta bildutakoek aho batez onartzen dute taxi baimena esleitzeko prozesua arautuko duen plegua eta Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, proposamena aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango dela finkatuz, behin Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

6.-Mozioa.

Kattalingune zerbitzu publikoaren murrizketen inguruan Sara Quesada Diazek mozio bat aurkeztu du baina gaztelania hutsean dagoenez euskaraz bidaltzea eskatuko zaio hurrengo batzarrean onartua izan dadin

Bestetik bigarren mozio bat dagoela adierazten du alkateak, amiantoaren desagertetan planaren ingurukoa, ondoren irakurri eta traskribatzen dena, mozio hau Basaburuko udaleko batzarrak ondoren zehazten den MOZIOA aurkezten du ADAVAN elkarteak bultzatua, aztertu eta bozkatua izan dadin.

1.- Amiantoa material kantzerigenoa eta oso hilgarria da. Bere aldakortasuna eta prezio baxua direla eta, modu masiboan erabili joan den mendeko 70/90eko hamarkaden artean. Bere bizitza erabilgarria 30/50 urte artekoa da, eta latentzia-aldia 25/40 urte artekoa. Garai batean izandako esposizioek eta, ziurrenik, bere garaian instalatutako amiantoaren degradazioak eragindako ingurumen-kutsaduren ondorioz kutsatutako pertsonen kasuak ezagutzen hasi gara. Ondorio kaltegarriak jasaten dituztenei, kasurik onenean, neurri aringarriak baino ezin zaizkie aplikatu. Kalkuluen arabera, Espainiar estatuan amiantoaren ondorioz izandako heriotzak 50.000 eta 100.000 artekoak izango dira 2050ean.

2.- Nafarroa erkidego oso industrializatua izanik, Estatuko gunerik kaltetuenetako bat da, eta Basaburuan gure kuota-zatia betetzen dugu.

3.- Europar Batasunaren aginduz, Espainiar Estatuan 2001. urtean amiantoa erabiltzea debekatu zen, baina gure eguneroko bizitzan presente jarraitzen du. Nafarroan 6 milioi metro karratu daude industria- eta nekazaritza-nabeen estalkietan, ikastetxeetan, eraikin publikoetan eta abarretan, eta 526 kilometro kanalizazioetan, ureztatze-uretan, zorrotan, ahoko uretan eta abarretan. Kosmetikako multinazional ezagun batek talko-hautsak merkatutik erretiratu behar izan ditu duela gutxi, amiantoa zutelako.

4.-2013ko maiatzaren 14ko Europako Parlamentuaren 2012/2065 Ebazpenak, Batasuneko herrialdeetan 2032. urtearen amaierarako amiantoarekin bukatzeko betebeharra ezartzen du.

5.- 2015-2019. legegintzaldian, Nafarroan amiantoarekin bukatzeko Plan Zuzentzailea egin zen, eta Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak aho batez onartu zuten. Europar Batasunak ezarritako helburua lortzeko, gutxienez 240 milioi euroko beharko direla kalkulatu zen (20 milioi euro urtean 2023. urtera arte). Plana aitzindaria izan zen

Estatu mailan, baina legegintzaldi honetan ez da aurrerapauso nabarmenik egin eta beste autonomia erkidego batzuk Nafarroari aurreratu diote.

6.- ADAVANek, Nafarroan amiantoaren biktimei laguntzeko elkarteak, aipatutako Plan Zuzentzailea martxan jartzeko borroka egin du. 2021ean, amiantoa kentzeko plana abian jartzea planteatu zitzaion Nafarroako Parlamentuari, eta 1.200.000 euroko gastua proposatu zen. Aurrekontu-baliabiderik ez zegoela argudiatuz, 65.000 euro baino ez ziren bideratu amiantoa duten materialak identifikatzeko eta kudeatzeko gaikuntza-ikastaroetarako. Berriz ere, 2022ko abenduan, ADAVANek elkarriketak izan zituen José María Aierdi lurralde-antolamenduko sailburuarekin, eta hark jakinarazi zuen Estatuarekiko hitzarmenaren ondorioz 137 milioi euro itzuli behar zaizkiola gure erkidegoari. Sailburuak amiantoa kentzeko plana abian jarri eta garatzeko beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak bideratzeko konpromisoa hartu zuen. ADAVANen kalkuluen arabera, 2023. urterako 24 milioi euroko funtsak funtsak beharrezkoak ziren.

7.- Trantsizio Ekologikorako Ministerioak apirilaren 8ko 7/2022 Legea onartu zuen, eta, horren arabera, udalek amiantoa duten instalazioen eta tokien errolda bat izan behar dute BOEn argitaratu eta urtebeteko epean, bai eta amiantoa ezabatzeko egutegi bat ere. Erabilera publikoko eraikinen kasuan, epea 2028rako da.

8.- Amiantoarekin bukatzea, bidezko aldarrikapen soziala izateaz gain, legezko betebeharra da, eta egungo Nafarroako Gobernuaren eta udal guztien konpromiso politikoa.

Erabakiak. Udalbatzak onartzen du

1.- Nafarroako Gobernuarekin batera, Basaburuko udal dermioan amiantoa duten lekuen errolda bat egitea 2023a amaitu baino lehen.

2. Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, erabilera publikoko eraikinetan mineralarekin bukatzeko plan bat osatzea, 2023. urte hasi baino lehen gauzatzeko egutegiarekin.

3.- Nafarroako Gobernuari eskatzea amiantoa kentzeko plana martxan jar dezan, eta 2023. urtean garatu ahal izateko behar bezain beste aurrekontu gaitzea helburu horretarako (ADAVANen kalkuluen arabera, 24 milioi euro).

4.- Eskualdeko eta eskualdeko osasun-zerbitzu publikoen inplikazioa eskatzea, herritarrak amiantoa modu seguruan desagerrarazteko behararen inguruan informatzeko eta sensibilizatzeko, eta Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuari amiantoaren ondoriozko gaixotasunak goiz detektatzeko.

5.- Lan-osasuneko eta laneko administrazio publiko eskudunekin lankidetzan aritzea, obra- edota eraispen-lizentziak ematean laneko arriskuen planak betetzen direla ziurtatzeko.

6.- Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuko presidente Chivite andreari, Lurralde Antolamenduko kontseilari Aierdi jaunari, Osasun kontseilari Indurain andreari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari. Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

7- Batzordeen informazioa.

Gizarte Batzordea. M^o Mar Ansorenak ematen du informazioa:

Emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko, afaria eta antzerki tailerra egin ziren Apeztegi berrin.

Hezkuntza batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa:

Bileran izango da Ttikenako zuzendariarekin aurrematrikuko datuak aztertzeko eta bertan ere begiratu da 2. Unitatea sortzeko dirulaguntza lerroetan ze inbertsio sartu ahalko litzatekeen, laguntza hau eskatu ahal izateko.

8- Informazio orokorra.

Ez dago.

9. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:40 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.